

Euskararen **3** sentsibilizaziorako pilula:

euskara hobetzeko aholkuak, euskarari buruzko
berriak, euskal kultura eta askoz gehiago!





Euskara hobetzen: nola da, 'ezta' ala 'ez da'?



Galderari erantzuteko, bi alderdi bereizi behar dira:

IDAZKERA: Euskaltzaindiak **ez du araurik eman** auzi horretaz; beraz, '**ezta?**' nahiz '**ez da?**' idatz daiteke oraingoz. Jakin beharrekoa da, ordea, 'ezta?' forma fosildua dela nagusi bai tradizioan, bai gaur egun ere. Hala ere, tradizioko forma zaharragoak erabili nahi izatera, 'ezta hala?' baino egokiagoak dira bereiz idatzitakoak: **ez da hala?, ez al da hala?, hala ez da? eta abar.**

AHOSKERA [87. araua].


- Hizkera zainduan, ez partikulak eragindako hots-uztartzeak kontuan hartu behar dira.
- "Ez dakit" --> [**eztakit**] [***ezdakit**]
- "Ez zuen" --> [**etzuen**]

2

Asmakizuna

1997ko Txapelketa Nagusian Andoni Egañari **hitz bat** eman zioten, gai gisa, bertsoa osatzeko. Hara zer kantatu zuen:

Zer da?



“Batzutan da argia
bestetan iluna
batzutan pilakoa
bestetan astuna
kanpotik ilea du
barruan garuna
lepo gainean denok
daukagun laguna
gehiegik gutxiegi
erabiltzen duna”.



Literatura-gomendioa

Oihane Zuberoa
Garmendia



BI ALDIZ IRAUN



Bi aldiz iraun bigarren liburua du Oihane Zuberoa Garmendiak (Erronkari, Nafarroa, 1993).

Poema liburu honetan, ahanzteak, zahartzeak edota memoriak osatu dute funtsa, eta ikuspegi ugaritatik heltzen zaie.

«Oso istorio xumea da, baina arteaz eta bizitzaz asko esaten du»



Mila esker!

Hurrengo Pilulara arte

Proposamenak, iradokizunak, zalantzak...



i.lizeaga@elhuyar.eus